

NARRATIBA LABURREKO IDAZKETA TAILERRA (HASTAPENA)

Jarduera

Idazleak norberaren hitzak, bizipenak edota emozioak oinarritzko tresna bezala erabiltzen ikasteko tailerra.

Deskribapena

Ikastaro hau idazkeraren sormen-prozesuarenganako interesa azaltzen duen edozeini zuzendua dago. Norbere istorioak idatzi eta besteenak aztertu ahal izateko xedeaz, kontakizun laburraren (ipuinak, mikrokontakizunak, ...) oinarritzko kontzeptu zein teknikak landuko ditugu.

Helburuak

- Literatur-testu ezberdinak sortu; ikuspegiak, elkarrizketak, espazioa eta denbora.
- Kontakizun laburraren oinarritzko beharrak ulertu.
- Hasiera, korapiloa eta bukaera oinarri dituen egituraketa soila ezagutu.
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea.

Nori zuzendua

Helduak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Idazteko eta apunteak hartzeko materiala.

Oharra

Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.